

**M**ikel Laboaren hamalau kantu oinarri hartuta, Iñaki Salvadorrek musika moldatu eta

Iñaki Landak koreografiak sortu ditu. Tanttaka antzerki taldearen eta Gipuzkoako Foru

barnean. Victoria Eugenia antzokian, Maiatza Dantzan-en

Aldundiaren arteko kooproduzio hau 'dantza-kontzertu' bat bihurtu da. Bihar estreinatuko da Vic-

## 'Zilbor Hestea', Laboaren musika dantzaren bitartez taularatua

LOREA AGIRRE / DONOSTIA



'Dantza-kontzertu' edo 'antzerki-dantza kontzertu' bezala definitu dute bai Fernando Bernues eta bai Iñaki Salvadorrek, 'Zilbor Hestea' ikuskaria, bi hitzetan zer den esateko galdetu diegunean. Lau dira musikariak, Inaki Salvador pianoan eta esku-soinuan gain, Aitor Landeta (perkusionan), Eduardo Salvador (baxua, gitarra eta trabestako flauta) eta Josetxo Silguero (saxoa). Dantzariak Zalao Arregi, Nerea Arrizabalaga, Arroxe Madurga, Mila Martinez, Pedro Montoya, Ana Remiro eta Miguel Zubeldia dira. Guztiak batzen dituen Mikel Laboaren musika da.

Zazpi urte daramatza Iñaki Salvadorrek Mikel Laboarekin lanean. Ikuskari honetarako Laboaren kantuak moldatzerakoan kantaria ezguzteak, askatasuna eman diola adierazi digu. «Ondo ezagutzen dituzu kantuak eta baita berari gustatzen zaiona. Horregatik bide berriak urratzeko askatasun handia duzu, beldurrik ez. Moldaketa lana oso libreki egin dut. Erabat lirikoak ziren kantu batzuk, erritimo azkarra hartu dute. Uste dut Mikelen musika esperimentuak egiteko oso aproposa dela. Lan honetan, nolabait esateko Mikelen filosofiatik abiatu naiz. Hau da, musika eklektikoa eta singlea bersortzera joan naiz, fusiora».

Hala ere kantu guztiak erraz ezagutzen dira. 'Txinaurria', 'Izarren Hautsa', 'Zure Begiek', 'Bentara Noa', 'Haize Egoa', 'Denbora Galduaren Bila-Baztan', 'Lizardi', 'Haika Mutil', 'Baga, Biga, Higa', 'Bereterretxen Kanthoria', 'Zilbor Hestea' eta 'Oi Pello, Pello' kantuekin osatzen da ikuskaria, ziurrenik udazken ingururako disko batean bilduko direnak.

**LAU HILABETEKO LANA** Laboak sortu eta bildutako kantu guztien arteko aukeraketa egiterakoan, ezagunenak izan daitezkeenak hartu dituzte. Hauetarik 'Zilbor Hestea' abestiaren titulua jarri diote muntaiari, «nolabait ikuskarian musika, dantza eta antzerkia zilbor hestez loturik balego bezala adierazteko» azaldu digu Fernando Bernuesek, Tanttaka antzerki tadeko zuzendariak eta muntaiari honetako eskenatzailea burutu duenak.

Bernuesen hitzetan, «Tanttakak as-



Zazpi dantzari eta lau musikaririk osatzen dute ikuskaria. J. GOYA

**MOLDAKETA** lana oso libreki egin dut. Erabat lirikoak ziren kantu batzuk, erritimo azkarra hartu dute. Uste dut Mikelen musika esperimentuak egiteko oso aproposa dela»

**IÑAKI SALVADOR**

palditik zuen asmoa dantza alorra jorratzeko. Dantzari asko dago hemen, baina produkzioak egiten du huts, bai eta tradizio ezak ere». Tanttakaren aurreko antzezlanetan, 'Kontuz maite zaitut' lan musikalean, elkartu ziren Iñaki Salvador, Iñaki Landa eta Fernando Bernues. «Iñakik komentatu zigun Mikel Laboaren musikaren moldakuntzekin zerbait egiteko asmoa zuela.

Eta horrela lehen ideia sortu zen. Orain lau hilabete hasi ziren ideia honen gorpuzketa lanak. Ensaioak. Orohar, Iñakik abestiak moldatzen zituen heinean koreografiak sortuz aritu gara. Nolabait esateko eskenategiaren gainean gauzatu da benetan ideia, ez aurretik».

Foru Aldundian aurkeztu zuten proiektua, Tanttaka taldeari ezinezko bait ziotzaion bakarrik produzitzea. Hamar milioi pezeta (bostehun mila libera) ingurukoa da 'Zilbor Hestea-ren' pre-



'Antzerki-dantza kontzertua'.

JOXAN GOYA

**TESTUAK** sor ditzazken sentsazioak edo mami poetikoa landu dugu. Dantzak ez dira deskriptiboak, nahiz eia barne bilakaera eta bukaera bat duen bakoitzak»

**IÑAKI LANDA**

eta noski musikala. Agertzen den istoria irekia da, sentsaziozkoa, interpretaziorako bidea libre uzten duena» adierazi digu Iñaki Landa, koreografiaren egile eta zuzendariak.

Kontzepzioz singlea da 'Zilbor Hestea-k'. Iñaki Salvadorrek aipatu bezala, Laboaren filosofian bide single eta eklektikoa, eskeneratzean ere igarri da. «Mundu irreal edo surreal girotzeko erabiltzen

dira antzerki ezugarriak eta jantzieren diseinua ere. Izaera desberdineko elementuak sartu ditugu. Argiekin ere joku ugari egiten dira» gaineratu du Iñaki Landak.

Ordu t'erdiko iraupena du ikuskaria, ordu laurdeneko atsedendiairekin. Victoria Eugenia antzokian estreinatuko da bihar arratsaldeko zortziretan. Eta gero ahal bezaien gehien zirkuitatzeko asmoa du, hemezortzi laguneko talde honek.

supuestua.

Kantu bakoitzak bere koreografia propioa du, abestiaren testuak oinarri hartuta sortutakoak. Hala ere ez da testua zehazki taularatu. «Testuak sor ditzazken sentsazioak edo mami poetikoa landu dugu. Dantzak ez dira deskriptiboak, nahiz eta barne bilakaera eta bukaera bat duen bakoitzak. Espazioarekin eta antzerki elementuekin jotzen da, keinuetan bereziki, baina dantza garaikidea da nagusi ikuskarian. Bisuala da muntaiari